BERTSOTAN II
1936 - 1980
Joxanito Dorronsoro

## EGUN DA SANTI MAMIÑA

Arestiren koplarik ezagunenak eta herritarrenak; klasikoetan klasikoak jadanik. Horrekin esana dago dena, horixe bait da laudoriorik atseginena bertso egilearentzat. «Harri eta herri» poema liburuan argitaratu zituen, eta gero Mikel Laboa kantariak ezaguterazi Euskalerri zabalean.

**223**

-1-

egun da Santi Mamiña
benetan egun samiña
goiko zeruan gorde dezala
luzaro neure arima

-2-

esanen dizut egia
hau ez da usategia
erroi artean izan nintzaden
benetan ausartegia

-3-

itsas aldean izarra
hari begira lizarra
euskara salbo ikusi arte
ez dut moztuko bizarra

-4-

kantatu zuen oilarrak
argitzen dira belarrak
Ageda gure martiriari
moztu zizkaten bularrak

-5-

bularrak moztu zizkaten eta
Euskalerriak diotsa
solomo luze dultzerik gabe
eman zaidazu bihotza

-6-

eman zaidazu bihotza eta
ken berriz nahigabeak
esan noiz garen izanen gure
etokizunen jabeak

## ASTIGARRAGAK FAMA IZAN DU

**Arozamenak**

Lesakan jaio zen Mikel Arozamena baina zazpi urte zituenetik Astigarragan bizi izan zen. Sagardo onaren eta sagardotegien fama ongi merezia du Astigarragak, eta haietako gehientsuenen errebista pasatzen du hemen bertsolariak, ezagutu ere egingo zituen ta, ofizioari dagokionez.

-1-

Astigarragak fama izan du
sagardo onak izaten
mutil koskorra nintzan ni baina
gogoan nola daukaten
aste santuan elizkizunak
gero sagardo edaten
esan nai nuke ez dakitenek
orain jakindu dezaten

-2-

Gartziategi eta Portutxo
ta Mendiola hurrian
Kakonia eta Errekalde
berebiziko indarrian
Jose-Beltza-neko Rikardok'e
Desierto-ko kupelian
ta Izaskun-go harrobikuak
ez dira oso motelian

-3-

handik hurrena Santiyomendi
hara mendian kaskuak
han'e kupelak izaten ziran
eginda dauzkat juzkuak
handik'e jetxi izandu dira
maleta egiazkuak
ta Goikoetxen egoten ziran
sagardo bikain askuak

-4-

beste bat bada Astigarragan
Borda deitzen dioguna
nik bezelaxe geiagok ere
izango dute entzuna
fameli dana ezagutzen det
berakin badet jarduna
bihotz-bihotzez serbitzen dute
eskatutzen diozuna

-5-

Ergobitikan irten da gero
hortxe degu Gurutzeta
sagardotegi bikaina dago
jende askok dakite-ta
tortila eta txuleta ederrak
ondo serbitzen dute-ta
bat argi-argi ibiliarren
etxeratzen da beteta

-6-

hor Gurutzetan dexente edanda
beste bat bada hurrena
sagardotegi bikain askua
Oiarbide du izena
sagar onakin urikan gabe
hau da egiten dutena
horregatikan urte askotan
bera izaten onena

ASTIGARRAGA eta SAGARDOA

9/ Orain ainbeste azkartasun da
orain ainbeste talentu,
alare danak asarre gabiltz,
iñor ez gaude kontentu.
Kukuak dira mututu eta
eizak mendian gastatu,
beldur dirade munduak laister
bear duela bukatu.

NERE ALDIA → MIKEL AROZAMENA
AUSPOA 127

- ASTIGARRAGA HERRIA. SAGARDOTE-
GIETAR pag 16.

- Mikel Arozamena Larralde bertsola-
ria, gaztenik asi zan bertsotan,
Astigarragako sagardotegietan - eta.
Geroztik ia iñauteno or dabil erriz-
- erri, etengabeko jardunean. pag 9-10



SAGARDOA

1/ Lenengo arbolak izan bear du
paradisuan sortua,
Adan da Ebak andik jatea
zeukaten debekatua,
gure Jainkoak euskaldunentzat
zeukalako aldatua,
gero sagardo biurtu zedin
ematen zuen frutua.

2/ Azi artatik sortu ziraden
lur ontako sagastiak,
guraso zarrak ondiatuta
lenago zeuden sasiak.
Bi arbol-klase jarri zituzten,
dira geza ta gaziak,
aien zumoa edan zezaten
euskaldun seme guziak.



IA KONTATUZ BEZALA
Pablo Zubiarrain
"Emani Txikia"
Auspoa 190

3/ Donostia'tik etortzen ziran
tranbe zar danak betean,
Astigarraga ta Ernani'ra
jendea garai batean.
Danak euskeraz kantatzen zuten
upel aundien tartean,
orain dagoen aiña kanpotar
ez baitzegoen artean.

4/ Euskalerria paradisotzat
bezela zegon munduan,
baserri danak sagardotegi
izaten ziran orduan.
Obe genduke gaur e bageunde
garai artako moduan,
aurrerapenak gure lurrera
ara zer ekarri duan.

5/ Sagardotegi maitagarriak,
joan ziñaten bukatzen,
kimikaz egindako ardoa
asi baitziran ekartzen.
Etxean degun gauzik onena
arrezkeroztik baztartzen,
euskaldunari gauza askotan
orixe zaigu gertatzen.



6/ Sagardotegi maitagarriak,
beti zaituztet goguan,
zuen barruan neguan antxe
egoten nintzan zeruan.
Zar eta gazte danak bildurik
upeltxoaren onduan,
bertsolariak ederki daki
zenbat gozatzen genduan.

7/ Alez beteta dauden arbolak
zer poza ematen duten,
sagar-urte bat izugarria
nola gertatu dan aurten.
Len zokoetan zeuden upelak
apenas lanik daukaten
lengo urtetan egoten ziran
bezela utsik egoten.

8/ Garai batean baserrietan
ziran sagasti edarrak,
geientsuenak igartu dira,
tapatu zituen larrak.
Ondorengoak izandu gera
olako seme zabarrak,
au ikusita guraso aiek
eingo zituzten negarrak.

9/ Len garbi zeuden mendi guziak
asi ziraden beztutzen,
sagarra kendu eta piñua
asi zanean sartutzen.
Garai batean debalde zana
gaûr urrea pagatutzen,
ia iltzera ekarri degu,
baiñan asi da piztutzen.

10/ Aspaldi xamar asiak ziran
gu galdu naian etsaiak,
kale aldera bialdu-azten
mendian zeuden artzaiak.
Txarrenak orain droga zabaltzen
emen dabiltzan izaiak,
zenbat beneno tragatu degu
Gipuzkoa ta Bizkaia'k?



## TERUEL'GO BERTSOAK

Etorri zan gerra; ta ni, lenengo, alde batetik ibilli nintzan, Bizkai aldera joanda.

Baiña Bilbao artu baiño lenago, iru izkutatu giñan da etxe aldera abiatu. Beste aldera pasa. Bat, arrapatu ta il-edo egingo zuten. Ez da azaldu geiago. Bestea bizi da. Kalera jetxi ta an ibilli omen zan. Egun batzutan ez omen zion iñork ere kasorik egin. Gero arrapatu zuten.

Ni, berriz, illunabar aldean abitu ta gabaz ibiltzen nintzan. Lendabiziko, nere burua Legazpi'n ezagutu nuen Gipuzkoa'ko lurretan. An trenbidera jetxi ta Tolosa'raiño trenbideaz etorri. Ortik Uzturre mendira igo ta Amasa'ko atze ortan barrena etxera allegatu, zutik egoteko gauza ez nintzala.

Etxean ez dakit zenbat denboran egon nintzan gordeta, sagardo-upelaren barrenean. Ta gero:

– Nortea artu ditek eta gerra bukatu dek, motell!

Miguel Arrazamena "NERE ALDIA" Antonio ta
MIKEL AROZAMENA
AUSPOA LIBURUTEGIA 127-126.
1976KO URTEA

## ASTIGARRAGA

1/ Astigarraga deitzen diogu,
erri bat zoragarriya,
ni Lesaka'tik etorri eta
ortxen bizitzen jarriya;
alde batetik Portutxo dauka,
bestetikan Ergobiya,
orain auzua izaten degu
lenago zana erriya.

2/ Lesaka'tikan etorri nitzan
nere pameli danakin:
iru senide anai ta arreba
eta aita ta amakin;
aitaren lana emen zan eta
bizi biar alkarrekin
bata bestian laguntzarekin,
iñortxok nai badu jakin.



3/ Astigarraga'k pama izan du
sagardo onak izaten,
mutil koskorra nitzan ni baña
goguan nola daukaten;
aste santuan elizkizunak,
gero sagardo edaten,
esan nai nuke eztakitenak
orain jakindu dezaten.

4/ *Gartziategi* eta *Portutxo*
ta *Mendiola* urrian,
*Kakonia* eta *Errekalde*
berebiziko indarrian;
*Jose-Beltza*'neko Rikardok e
*Desierto*'ko kupelian,
ta *Izaskun*'go arrobikuak
eztira oso motelian.

5/ Andik urrena *Santiyomendi*,
ara mendian kaskuak,
an e kupelak izaten ziran
eginda dauzkat juzkuak;
andik e jetxi izandu dira
*maleta* egiazkuak,
ta *Goikoetxe*'n egoten ziran
sagardo bikaiñ askuak.

6/ Beste bat bada Astigarraga'n
*Borda* deitzen dioguna,
nik bezelaxe geiagok ere
izango dute entzuna;
pameli dana ezagutzen det,
berakin badet jarduna,
biotz-biotzez serbitzen dute
eskatutzen diozuna.

7/ Astigarraga'tik Ergobi'ra
goazen poliki-poliki,
pixka batian itxogin eta
esango ditut ederki;
Ergobi ortan egiten dute
sagardo ona galanki,
etortzen dana serbitutzen da,
ez bildurrikan eduki.

8/ Ergobi'n sartu eta an dezu
eskubitara *Pausua,*
perratzallian sagardoteia
goguan daukat jasua;
an ere beti izaten dute
mama eder ta gozua,
dexente xamar edaten badu
bilduko du erasua.



9/ Beste bat ere goguan daukat
bera Ergobi'ko plazan,
sagardotegi eder askua
*Eprepane* ortan bazan;
bein eta bitan ibili giñan
*Eduardonia'*n gu saltsan,
Ergobi'kua utzi zun eta
gero Ernani'ra juan zan.

10/ Andik urrena guk badakigu
*Iraberri'*kua dala,
juaten danari serbitutzeko
gizon jator da apala;
gazte denboran egiten gendun
or edaten egiñala,
gaur berrizikan esan diteke
danak mudatu dirala.

11/ *Iraberri'*tik begiratuta
*Krispiñena* da urrena,
urte batzuak izango dira
gutxi egiten duena;
ez gero pentsa sagardo-kontun
izan dala makalena,
urte batian beintzat berak zun
Ergobia'n zan onena.

12/ Beste bat Joxe Arrieta zan,
gutzat *Otaño* munduan,
aretxek ere sagardo ederrak
ordun egiten zituan;
gure Jainkuak deia eginda
gaur ezta gure onduan,
biotz-biotzez opa diot nik
gerta dedilla zeruan.

13/ *Otaño*'neko beste aldian
da *Pagua* baserriya,
garai batian uraxe ere
gendun sagardotegiya;
Martin zana're juan zitzaigun,
bera ango nagusiya,
arixe ere desio diot
beti-betiko gloriya.

14/ *Garratxenia*'n egiten zuten
ez beste oiek ainbeste,
amaika aldiz etxe orretan
gu're serbitu gaituzte;
sagardua edan bertsuak bota,
kontu alai eta txiste,
garai artako lagun jatorrak
danak goguan dituzte.

15/ Ergobi'tikan irten da gero
ortxe degu *Gurutzeta*,
sagardotegi bikaña dago,
jende askok dakite-ta;
tortilla eta txuleta ederrak
ondo serbitzen dute-ta,
bat argi-argi ibili arren
etxeratzen da beteta.

16/ Or *Gurutzeta*'n dexente edanda
beste bat bada urrena,
sagardotegi bikaiñ askua,
*Oiarbide* du izena;
sagar onakin urikan gabe
au da egiten dutena,
orregatikan urte askotan
bera izaten onena.

17/ Eztakit danak esango nitun,
baliteke aztutzia,
kolpe batian ezta erreza
guzietaz oroitzia;
aurretik ona izan liteke
erreparuan jartzia,
ta iñorekin utsegin badet
nai nukena barkatzia.

18/ Astigarraga Euskalerrian
jende askok du entzuna,
erri aundia eztegu baña
polita eta txukuna;
Txirrita zanak trago ederrak
emen egiten zituna,
oraindik ere maitatutzen da
aitonak utzi ziguna.

19/ Euskaldunentzat ederrik bada
au da sagardotegiya,
Astigarraga'n ugari bada
naiz izan erri txikiya;
bide bakar bat auxe degu-ta
antziñakuak utziya,
Euskalerriko eraria da
sagardo maitagarriya.

20/ Urte-pasako gaur egiten du
bakoitzak bere etxian,
denbora baten Donosti'tikan
asko etorritzen zian;
garai aietan sagardotegin
nunai jartzen zan txotxian,
ai zer okerra etorri zaigun
lengo oiturak galtzian!



21/ Astigarraga'n ni bizitu naiz
ogei ta amar bat urtian,
poza ta penak izandu nitun
an negoen bitartian;
seme ta alaba kanposantuan
antxe dirade lurpian,
ta guk ementxe jarraitu biar
Jaunak nai duan artian.

22/ Ara nolatan izandu diran
nere emengo pausuak,
pasatu ditut egun tristeak,
baitare une gozuak;
*Arana-eder* etxeak eta
*Gurutzeta* du auzuak,
gure arreba zarrenarekin
antxen daude gurasuak.

23/ Gu sei senide bizi gerade
eta zortzi izanduak,
badakizute, gorabera asko
izaten ditu munduak;
aitak ekartzen zuanetikan
jantzi eta mantenduak,
kaso egitea merezi du gaur
len ainbeste lagunduak.

24/ Dozenatxo bat jartzeko asita
au ogei ta laugarrena,
geiago esan gabe uztiak
neri ematen dit pena;
bukatu zaigu etorria ta
aspertu're bai barrena,
okerrik egin badet barkatu,
auxen da nere azkena.

Mikel Arozamena



3/ Astigarraga'k pama izan d
sagardo onak izaten,
mutil koskorra nitzan ni b
goguan nola daukaten;
aste santuan elizkizunak,
gero sagardo edaten,
esan nai nuke eztakitenak
orain jakindu dezaten.

4/ *Gartziategi* eta *Portutxo*
ta *Mendiola* urrian,
*Kakonia* eta *Errekalde*
berebiziko indarrian;
*Jose-Beltza*'neko Rikardok
*Desierto*'ko kupelian,
ta *Izaskun*'go arrobikuak
eztira oso motelian.

5/ Andik urrena *Santiyomend*
ara mendian kaskuak,
an e kupelak izaten ziran
eginda dauzkat juzkuak;
andik e jetxi izandu dira
*maleta* egiazkuak,
ta *Goikoetxe*'n egoten zira
sagardo bikaiñ askuak.

–Iruiñe'ra, negura diru egiñera.

Gizon plakoak berriro:

–Berriz ere egongo aiz i gizon bikaiña!

Eta Txirritak:

–Bai i ere jango baukek nik aiña»[7].

* * *

«Garai batean, erropa upela bezalako ontzi batzutan, egosi egiten zen. Errenteria'ko Madalenetan, iru neska erropa jabotzen ari zirela, bertso au bota zien Txirritak:

Astelenian goa egosi
asteartian jotzeko,
asteazkenian eguzkitara
ostegunian biltzeko,
ostiralian plantxatu eta
beren tokian jartzeko,
larunbatian ondo zerate
Errenteri'ra joateko»[8].

---

1. Egibar baserriko aitona zana, Loiola, Azpeitia.

2. Inazio Zubizarreta, Errementeri, Loiola, Aspeitia.

Gabino Huizi, Goizueta: 1/1: Gazte denboran egin banintzan; 1/2; prailea edo misiyo; 1/3: nere gorputzak ez luke izango; 1/5: elizagandik aparte nabil; 1/8: asko ematen bazayo.

3. Juanjo Uria: *Txirrita (1860-1936), 50 urteurrena.*

Duda egiten degu guk, bertso au Txirritarena ote dan. Oso puntu baldarrak baitira emen. Puntu obeak erabiltzen zituan arek.

4. Patxi Labandibar, Larria, Oiartzun.

5. Pako «Balda» zana, Azkoiti, bera dultzaiñeroa izanik, an bertan zan. Zoritxarrez, etzuan bertso osoa gogoratu aal izan.

6. X. Arrieta, Arana baserria, Azkoitia.

7. Juanjo Uria: *Txirrita (1860-1936), 50 urteurrena.*

8. Juanjo Uria: *Txirrita (1860-1936), 50 urteurrena.*

## ASTIGARRAGA'N

Urrengo bi bertso auek, Astigarraga'ko plazan kantatuak dira. Ala entzun omen zion osabari Txirritaren illobak. Markes batek –Astigarraga'koa, beraz, batere dudarik gabe– ekar arazi omen zuan bertsotara.

Astigarraga uri kutun bat
mendi baten baztarrian,
gustagarrizko ibai zabalak
dituelarik aurrian;
erdi-erdian Fueruen plaza
Kontzejutikan urrian,
Santiagoren indartza ere
daukagu geren lurrian,
emen jendea bizi nai degu
lengo oitura zarrian.

Astigarraga zer dan juzgatzen
ez da danentzat erreza,
eztakienak ikasitzeko
atentzioa jar beza:



SAGARDOA

emen jipoiak artuak
moruak eta frantzesa
orain jendeak argatik
indarrarekin grandez
biba Ermo'ko don K
bere anaia markesa!

* * *

Txirrita tokatu omen z
ga'n egualdi bero batean, t
ra, bañan sosik ez. Baten
zula-edo, polikixeago omen
iñork deitzen ez; ta bera j
atal-ondora. Ta nagusiya
an, ta au kantatu omen zio

Eskerrak eman bear
zeru-lurreko Jaunar
pekatu aundiyan ez
beran aurrera erori
bero aundiya nola b
arkitutzen naiz egar
baso bat sârdo ema
errukal zaitez, Juan

Ta onek buelta:

Estimatzen det, Jo
egin dirazun graziy
zure bertsuak baso
ez ote du mereziya

ondo zerate
a joateko»[8].

o aitona zana, Loiola, Az-
reta, Errementeri, Loiola,
zueta: 1/1: Gazte denboran
ailea edo misiyo; 1/3: nere
igo; 1/5: elizagandik aparte
bazayo.
xirrita (1860-1936), 50 urteu-
ık, bertso au Txirritarena ote
arrak baitira emen. Puntu
ı arek.
ar, Larria, Oiartzun.
:ana, Azkoiti. bera dultzaiñe-
ın. Zoritxarrez, etzuan bertso
ana baserria, Azkoitia.
Txirrita (1860-1936), 50 urteu-
Txirrita (1860-1936), 50 urteu-

n Fueruen plaza
ikan urrian,
en indartza ere
eren lurrian,
dea bizi nai degu
ra zarrian.
ga zer dan juzgatzen
entzat erreza,
k ikasitzeko
jar beza:



emen jipoiak artuak dira
moruak eta frantzesa,
orain jendeak argatik dauka
indarrarekin grandeza,
biba Ermo'ko don Kandido ta
bere anaia markesa![1]

* * *

Txirrita tokatu omen zen Astigarraga'n egualdi bero batean, ta sagardotegira, bañan sosik ez. Batenbatek deituko zula-edo, polikixeago omen zijoen, bañan iñork deitzen ez; ta bera joan omen zen atal-ondora. Ta nagusiya Juan Mari zen an, ta au kantatu omen zion:

Eskerrak eman bearko zaizka
zeru-lurreko Jaunari,
pekatu aundiyan ez gaitezela
beran aurrera erori;
bero aundiya nola baidagon
arkitutzen naiz egarri,
baso bat sârdo eman kidazu,
errukal zaitez, Juan Mari!

Ta onek buelta:

Estimatzen det, Joxe Manuel,
egin dirazun graziya,
zure bertsuak baso bat sârdo
ez ote du mereziya?

Basua artuta oraintxe nazu
kupel ondora asiya,
barrena sartu zaitia, bada,
zeorrek nai dezun guziya.

Ta baso sagardoa eran omen zun Txirritak, eta eskeko bat an pasaran, *Astotxo* esaten ziotena, ta:

–I, Txirrita, kanta akiok orroko eskeko orri bertso bat! *Astotxo* esaten ziotek!

Ta au kantatu omen zion:

Anketan perrak baditu baño
txit motela da birian,
basta polipat bear litzake
para orreñ bizkarrian;
latoizko botoi, krabestu beltzak
dituela muturrian,
ta aitona zar bizar-zuri bat
trallan duela aurrian,
Maiatz aldian ai zer saltuak
etxe buruko larrian![2]

---

1. *Txirrita'ren Testamentua*, Imprenta Macazaga, Rentería.
2. Azken bertsoa Lexoti bertsolariari magnetofonoz jasoa.

Bertso au leen ere argitaratua degu liburu ontan. Baiña Elio esaten zioten mutil zar bati kantatua zala esan ziguten.

BERTSOTAN II
1936-1980
Juanito Dorronsoro

## EUSKALERRIA

**1975ko urteberri eguneko Txapelketa Nagusikoan Donostian laugarren saria jaso ondoren eskerrak emanaz kantatutako bertsoa. Joxe Joakinek erreztasun haundia du bertsotarako eta gogoko ditu bertso luzeak.**

Euskalerria euskalduna da
hori dadukagu beraz
gure sehaskan guk ez genduan
ezer ikasi erderaz
orain e bera zaila degu ta
geuria daukagu erraz
zenbat baserri-txoko ta kalez
hola egiten da jolas
euskaldunikan ez dan lekuan
gu ez baigerade kapaz
euskaldun bizi bihar genduke
jaunak egun eta gabaz
beste batzuek atal onduan
jarrigatik gure trabaz
egun batzuek pasatze'itugu
kezketan eta dardaraz
bainan oraindik irri ta parra
egin gendake algaraz
euskaldun geron guztiok anai
eiteko bagera kapaz
gure hizkuntza lurperatutzen
oraindik ez dago erraz

## BERTSOA BAGENDUEN

**Astigarragako Zapiain sagardotegian, bertsolari taldetxo bat bildu zen behin, bertan afaldu, sagardoa bapo edan eta bertso ugari kantatzera. Goizeko hirurak, hiru terdiak aldera noizbait saioa amaitu behar eta badoaz banaka bertsolariak, nagusi jauna despedituz. Han zegoen alaba gaztea ere afaria zerbitu ziena, atean agur eginaz; pinpola ederra gainera bera. Mitxelenak honela dio azken bertsoan, etxeko alabari bizkarretik helduta abiatzerakoan. I. Lazkanok eta J. M.ª Aranaldek biek eman didate bertso hau eta adierazpenak ere bai.**

**39**

bertsoa bagenduen
hitz eta hortzean
nola puntu luzean
ta berdin motzean
pena bat daramakit
nere bihotzean
upel denetan ezin
ari zipotzean



*Oiartzunen «Makutso» baserria, Mitxelenaren jaiotetxea.*